











Ezinbestekoa da ikasleak hausnartzeko eta erronketan txertatzeko une jakin batzuk ezartzea, honako alderdi hauek definituz:

- Norbere ikaskuntzari buruzko hausnarketa noiz egin.
- Ikasitakoa non eta nola jasoko duen.
- Hausnarketa hori sustatzeko eguneko, asteko edo erronkaren unea.
- Horretarako erabiliko diren dinamika, jarduera edo balilabideak.
- Noiz eta nola partekatu gogoetak gainerako taldekideekin.
- Eta hausnarketatik sortuko diren ikaskuntza-konpromiso berriak nola garatu.

Amaitzeko, garrantzitsua da azpimarratzea, gogoeta eta konpromisoak ikasturtearen egituran txertatzean, ikasleak, protagonista nagusia, ikasteko eta hobetzeko prozesuaren arduraduna izateko helburua sustatzen dela.

## IKASLEEN HAUSNARKETARAKO MOMENTUAK



### DEFINITU BEHARREKOAK:

- Hausnarketa noiz egin
- Ikasitakoa non eta nola jaso
- Hausnarketa sustatzeko momentuak
- Erabili behar diren dinamika, jarduera edo baliabideak
- Hausnarketa noiz eta nola partekatu
- Ikaskuntza-konpromiso berrien garapena

